



Saneamenduaren Nazioarteko Eguna da gaur; horren harira, munduko hainbat komun eta dutxa erakusten dituen argazki erakusketa bat jarri dute Gasteizko Goiuri jauregian.

# Ur garbia, osasun berme

Xabier Etxebarria Gasteiz

**N**azio Batuen Erakundeak gaurko eguna Saneamenduaren Nazioarteko Eguna izendatu zuen 2010ean. Mendebaldeko herrialdeetan oinarritzat jotzen dugun eskubidea edo baldintza baldin bada ere, munduan oso bestelako egoerak daude. Egoera horretaz kontzientzia sortzeko, Unesco Etxeak eta Uraren Euskal Agentziak, elkarlanean, *WC: errealitate desberdinak* erakusketa antolatu dute Gasteizko Goiuri jauregian, Asier Reinoren argazkiekin.

Erakusketa 19 argazkiz osatuta dago: Euskal Herriko, Finlandiako, Yemengo, Indonesiako, Ameriketako Estatu Batuetako, Boliviako, Indiako, Senegalgo, Australiako eta Burkina Fasoko hainbat komun, dutxa eta konketak biltzen ditu, munduko egoeren adierazgarri. Asier Reinok hogeitau urte daramatza horrelako argazkiak ateratzen; haien atzean ezkututzen diren ondorio sozialak argitaratu emanda hartzen dute argazkiek «zentzua», Reinoren arabera.

## Ondorio gogorrak

Ruper Ormaza Unesco Etxeko ordezkariak esan duenez, saneamendurako eskubidea kalitatezko ura eskuragarri izateko eskubidearekin dago lotua. Eskubide horiek ez bermatzeak osasun arazo larriak sortzen dizkio jendeari, eta gogoratu du desberdintasun sozialak areagotzea dakarrela, bereziki emakumeei, haurrei eta beste hainbat kolektibo babesgabereri eragiten baitie. «Hainbat herrialdetako ikastetxeetan komun pribaturik ez edukitzeak dakar neskek eskolara joateari uztea gaztaroan», jarri du adibidez. Gaur egun, 2.500.000 milioi pertsonak dute saneamendurako eskubidea bermatu gabe; eta gehiagok dauka sakelako telefono bat saneamendurako eskubidea bermatuta baino. «Egunean, 2.000 haur hiltzen dira saneamendurik ezaren ondoriozko gaixotasunengatik», gogoratu du Ormazak.

Hainbat multinazional boteretsuk uraren kontrola izan nahi dutela ere



Panamako Kuna Yalan hartutako irudia. ASIER REINO

salatu du, eta ura denon ondasun ubertsala dela aldarrikatu du. Saneamendurik gabe ezinezkoa dela giza garapena esanez amaitu du erakusketaren aurkezpena.

Uraren Euskal Agentziako zuzendari Iñigo Ansolak uraren egoera ekologikoa mantendu edo hobetzeko konpromisoa berretsi du, etxetara irtisten den ura gero ibaietara berdin itzul dadin. Horrek guztiak kostu eta

lan handiak dituela gogoratu du, «herriarrek ikusten ez dituzte lanekin lortzen da hori, askotan lur azpitik izaten baitira». Ansolak esan du lan horiek ekarri dutela azken urteetan Euskal Herriko ibaien egoera hobetzea eta horregatik «ezinbestekoak» direla.

Erakusketa hilaren 29 arte egongo da ikusgai Gasteizko Goiuri jauregian.



## Maratila

Aitor Txarterina

## Feminismoaz

**A**rgi dago azken 150 urteotan emakumeak aritu direla bizi dituzten egoera lastimagarriak konpontzen. Nago oraino gehiago eta gogorrago egin beharko dietela aurre kapitalismo basatia, fanatismo erlijioso, gaizki ulerturiko tradizio, juze matxista eta era orokorrean konpreniturik, matxista den orori. Eta handia da mundua, Dolores.

Aspaldi honetan feminismoaz ari dira hausnartzen gizon zenbait; euskaraz irakurri dut berria, gurean bezaz. Bejondeigula. Itsua denak bertzerik ez du ikusten patriarkatua (patriartigrea errelagoa dirudi, *sesangotsuipa*) eta bere ingurumaria. Injustiziaren argizkian, emakumeak ageri, agertzen, agertuko dira, maleruski.

Gizonok ezin gara feministak izan. Gogoeta interesgarria. Ez ba. Erdalduna ez daiteke euskaldun deitu. Akaso euskaltzale. Haietako aunitzi esker euskara biziberritzen ari gara. Halako zerbaite izan beharko dugu guk, zakildun kuadrilla. Feministak ez gara izanen, berzte kontzeptu bat asmatu beharko. Apika asmatu dago eta ni jokoz kanpo nauzue, aizue. Emakumea askatzen den egunean gizona askatuko da, nahiz eta azken hau jakitun ez izan.

Ez dago feminismo bakarra. Kanpotik ikusirik, islamarekin aldera daiteke, talde ezberdinei buruz, kopuruari buruz, soilik. Bai, soilik. Maila instituzionalean aurrerapenak izan dira munduan. Maila sozialean motela da marxa. Gibelera goazela emaiten du, zontzaitetan. Gibelera goazelako, batez ere.

Mundu hobea amesteko emakumea zentroan paratu behar dugu, etaertzetik, azpitik, espeztetik, burdeletik, etxeetatik atera bitez eta erdira betoz.

Asteartea 2013ko azaroaren 19a

berria